

METODOLOGIA-FITXA

ONTZIEN AITORPENAREN ESTADISTIKA (090224)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Ontzien aitortpenaren estatistika.

Eragiketaren kodea.

090224 (3/2014 Legea, azaroaren 13koa, 2014-2017 Euskal Estatistika Planari buruzkoa).

Erakunde arduraduna.

Ingurumena eta Lurralde Politika Saila.

Beste erakunde partaide batzuk.

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

Gai-arloa.

Ingurumena.

Maiztasuna.

Urtekoa.

Eragiketa-mota.

Zentzua.

Metodologia datuen jatorriari jarraiki.

Administrazio izaerako informaziotik abiatuta lortutako datuak.

Helburuak

Ontzien aitortpenaren estatistikaren helburu nagusia da legedian jasotako ontzi-hondakinak balorizatu eta birziklatzeko helburuen betetze-maila egiaztatzea EAEn. Datuen bilketa 94/62/CE Zuzentarauan oinarritzen da, zeinaren bidez, ontzien eta ontzien hondakinen kudeaketarako irizpideak zehazten baitira.

Metodologia

Ontzien eta ontzien hondakinen datuak material eta tratamendu motaren arabera banakatzen dira. Estatistika horren kalkuluari buruzko xehetasunak Batzordearen 2005/270/EE Erabakian, 2005eko martxoaren 22koan, zehazten dira, datu-baseen sistemarekin lotutako formatuak ezartzen dituen, ontzien eta ontzien hondakinei buruzko 94/62/EE Zuzentarauarekin bat etorritz.

Ekoizlearen Erantzukizun Zabaleko Sistema ezberdinek, beren erantzukizunpeko ontziei (etxeko ontziei) dagozkien datuak kalkulatzeko beharrezko informazioa urtero bidaltzen dute.

Gainerako ontzi-hondakinen datuak (industria eta merkataritza-ontzienak) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak urtero egiten dituen hondakinen inbentarioetatik lortzen dira. Inbentario horiek, era berean, hondakinen ekoizleetatik eta tratamendu-instalazioetatik lortutako informazioa jasotzen dute, eta baita foru-aldundiak emandako datuak ere.

Aztertzeko aldagai nagusiak

- Honako **ontzi-hondakin** hauen **kopurua**, EAEn, materialen arabera:
 - o Beira
 - o Plastikoa
 - o Papera eta kartoia
 - o Metalak
 - o Zura
 - o beste batzuk

- Ontzi-hondakinen tratamendu-operazioa:
 - o Birziklapena
 - o Berreskurapena/Balorizazioa (energia berreskurapena-R1 barne)
 - o Errausketa

- Sortutako ontzi-hondakinen **birziklapen-tasa**
- Sortutako ontzi-hondakinen **balorizazio/berreskurapen tasa** (hondakin birziklatuak eta energia berreskurapena hartzen dira kontutan)

Eremua

Populazio-eremua:

EAEn merkaturatutako ontziak eta jasotako, kudeatutako, balorizatutako, berrerabilitako eta birziklatutako ontzi-hondakinak, Europako Batzordearen formatuari jarrikiz (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko 94/62/EE Zuzentarauarekin bat egiten duten datu-base

sistemako ereduak ezartzeko den Batzordearen 2005eko martxoaren 22ko Erabakia).

Lurralde-eremua:

EAEko balio esanguratsuenak jasotzen dira.

Denbora-eremua:

Jasotako datuak urtean zehar erregistratutako jardueren ingurukoak dira.

Galde-sortak

EAEko ontzien eta ontzien hondakinen estatistika 2005/270/EE Batzordearen Erabakiaren arabera egiten da, ontzien eta ontzien hondakinei buruzko 94/62/EE Zuzentarauari jarraituz.

Ekoizlearen erantzukizun zabalaren printzipioaren pean dauden ontziratutako produktuen ekoizleek 2005/270/EE Erabakian zehaztutako galdetegia aurkezten dute urtero.

Zabalkundea

- [Internet: Laburpen taulak. Organo Estatistikoa.](#)
- [Internet: Taula estatistikoak Eustat.](#)